

# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Oposaketak eta lehiaketak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 1895

*324/2024 EBAZPENA, apirilaren 5ekoa, Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendarigereentzaren, zeinaren bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuan Erizaintzako Zuzendaritzarako Giza Baliabideen Ondokoa lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia egiten den.*

Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuan Erizaintzako Zuzendaritzarako Giza Baliabideen Ondokoa lanpostua hutsik dago. Hori dela-eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza-Gerentzia honek, honako oinarrien arabera

### OINARRIAK

#### 1.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

a) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetako langile finkoa izatea (estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratuduna) eta plaza jabetzan edukitzea dagokion lanbide-taldean: B1.

b) B1 taldeari dagokion titulazioaren jabe izatea.

c) Gutxienezko lan-esperientzia 4 urtekoa, B1 lanbide-taldean.

d) Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta Osakidetzako Euskara Planean ezarritako gainerako betebeharrak.

#### 2.– Aintzat hartuko diren merezimenduak.

– Esperientzia eta/edo prestakuntza izatea osasun-kudeaketako lanpostuetan.

– Pertsonak kudeatzeko ezagutza eta/edo esperientzia.

– Prestakuntza/Esperientzia taldeen antolakuntzan, lidergoan eta zuzendaritzan.

– Giza baliabideak kudeatzen laguntzeko tresnak ezagutzea.

– Prestakuntza eta ezagutzak arlo hauetako tresnetan: kudeaketa, kalitate ereduak, prozesuak, etengabeko hobekuntza, MGA.

Lanpostu hau betetzeko interesgarria izan daitekeen edo balioa erants dezakeen edozein merezimendu aurkeztu ahalko izango da.

#### 3.– Euskararen ezagutza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak eta berau garatzen duten arauak xedatutakoaren arabera egingo da balorazioa.

#### 4.– Eskaerak egiteko epea eta aurkezteko modua.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bidasoko ESiko Langileen Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak (Zubieta Soro, Mendelu Auzoa, 20.280 Hondarribia). Horretarako, 15 egun balioduneko epea izango dute, ebazpen hau EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Aurkeztu ahal izango dira, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako eran.

Interesdunek Bidasoko ESiko Langileen Zuzendaritzara bidali behar dute eskabidea (Zubieta Soro, Mendelu Auzoa, 20.280 Hondarribia), beren datu pertsonal guztiak eta curriculum vitae dokumentatuarekin batera.

Dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.
- Baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.
- Baloratu beharreko merezimendu guztien fotokopia konpultsatua.

CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden alderdiak ez dira ziurtatu behar izango aurreko paragrafoan ageri den moduan; hala ere, eskatzaileak horren berri eman behar du eskaeran.

#### 5.– Balorazio Batzordea.

Batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak baloratzeko, eta izangaiei horren berri emango zaie.

Batzordeak, eskabideak baloratu ondoren, eginbide osagarriak gauzatzea erabaki dezake; eta izangaiei horren berri emango die.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, dagokion izendapena egiteko proposamena aurkeztuko da. Lanpostua hutsik uztea proposa dezake epaimahaiak, betiere aurrez txosten arrazoitua eginez, baldin eta izangaiek betetzen ez badituzte bete beharreko baldintzak.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak eta gauzatutako eginbide osagarriak (halakorik balego) zerrendatuko dira, eta lanpostua euretako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango.

#### 6.– Hautaketa prozedura.

Ezin izango dira baloratu, inolaz ere, deialdia EHAAAn argitaratzen den egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, ez eta eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta egiaztatu ez direnak ere.

#### 7.– Prozedura amaitzeko Ebazpena.

Honen bidez hasitako prozedurari amaiera emango zaio (lanpostua esleitzea edo betetzeke uztea), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bidasoko ESiko zuzendari-gerentearen ebazpenaren bidez, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta baita Osakidetzaren intranetean zein web-orri korporatiboan ere argitaratuko da.

2024ko apirilaren 19a, ostirala

Ebazpenak ondorioak izango ditu EHAAan argitaratzen den egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean.

8.– Ebazpen honen aurkako errekurtsuak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hondarribia, 2024ko apirilaren 5a.

Bidasoko ESIko zuzendari-gerentea,  
MARISA MERINO HERNÁNDEZ.